

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

## 3562

*IRAGARKIA, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita ingurumen-baimen bateratuaren funtsezko aldaketarako proiektua, Ramondin Cápsulas, S.A. enpresak aurkeztu duena Laguardiako udalerrian botilatze-industriarako eztauzko, konplexuzko eta PVCezko kapsulak fabrikatzeko jarduera.*

Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuaren Legearen testuategina onartzen duenak, ezartzen du ingurumen-baimen bateratua izan behar dela 1. eranskinean jasotako jardueretako batzuk egiten diren instalazioetan eraikuntza-, muntatze-, ustiapen- edo lekualdatze-lanak egiteko edo horietan funtsezko aldaketaren bat egiteko.

Ingurumen-baimen bateratuaren xedea da atmosfera, ura eta lurzorua ez kutsatzeko edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura murriztu eta kontrolatzeko baldintzak ezartzea, kutsadura prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema integratuak ezarri; horrela, ingurumen osoa ahalik eta hoberen babestu ahal izango da.

Bestalde, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikulua arabera, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztu denean, horiek jendaurrean erakusteko epealdi bat ezarri behar dela, gutxienez 30 eguneko.

Botilatze-industriarako eztauzko, konplexuzko eta PVCezko kapsulak fabrikatzeko jardueraren kasuan jendaurrean jarri behar da ingurumen-baimen bateratuaren funtsezko aldaketarako proiektua.

Adierazitako guztiagatik, Ramondin Cápsulas, S.A. enpresaren AAI00225\_MS\_2024\_001 espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki deritzeten alegazioak eta oharak.

Jendaurreko izapidean jarriko den instalazio-espedientea Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) argitaratuko da, jendeak eskura izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 3a.

Zuzendaria ez dagoenez, otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak ezarritakoa betez.

Ingurumen Jasangarritasunaren sailburuordea,  
AITOR ALDASORO ITURBE.